En cuanto a la escalera noble de la Casa Consistorial, estaba ocupada por una galería de retratos reales de la monarquía española, fundamentalmente de las dinastías de Austria y Borbón, y realizada en el siglo XVIII por el pintor Diego Díaz del Valle. A pesar de las precipitadas manifestaciones de los concejales de UPN, clamando por el gran valor artístico de las obras, lo cierto es que se trata de un pintor de segunda fila, en cuya mediocre obra esta galería ocupa además uno de los lugares de menor calidad artística. Son retratos caricaturescos, que carecen de volumen y de corrección en el trazo, que fueron realizados a partir de estampas, grabados y otros modelos intermedios, y que no han oído hablar de aspectos tales como el estudio de calidades o la profundidad psicológica. Son, si se me permite la expresión, meras máscaras, seriadas, rígidas e inexpresivas, obras de taller impropias de figurar en la escalera noble de la Casa Consistorial.



> La galería de retratos reales del Ayuntamiento de Pamplona no reúne ni la calidad artística ni los elementos de significado apropiados para presidir un espacio público en la Pamplona del siglo XXI

Y lo cierto es que, mientras UPN decía preocuparse por el patrimonio de la ciudad, estas obras eran cuidadosamente retiradas por técnicos especialistas en gestión de obras de arte, que las embalaron con manos expertas y la llevaron a un almacén donde su conservación está perfectamente garantizada.Y he aquí una nueva y sangrante paradoja, puesto que prácticamente la misma semana en la que UPN clamaba por el patrimonio de la ciudad, se conoció la aparición, en una bajera municipal, de los restos arqueológicos procedentes de la excavación de la plaza de San Francisco. Mucho mejor hubiera sido para esta ciudad que nuestros predecesores se hubiesen preocupado por velar para que dichos restos no hubieran estado durante los últimos 24 años deteriorándose, de manera irreversible, en una húmeda bajera.

En conclusión, podemos asegurar sin ningún género de dudas que la galería de retratos reales del Ayuntamiento de Pamplona no reúne ni la calidad artística ni los elementos de significado apropiados para presidir un espacio público en la Pamplona del siglo XXI. Por ello, debidamente manipulados y embalados, permanecerán donde se garantice su conservación a futuro, como patrimonio municipal que son.Y de esos mismos almacenes municipales los técnicos rescatarán otros elementos de decoración, que favorezcan la comprensión histórica de la ciudad, y que subrayen en lo posible la importancia de este edificio como símbolo de unión para una Iruñea abierta, plural, diversa y moderna.

Noticias de Navarra

Nadie lo diría

Anna Ballbona

Franco murió en 1975 pero nadie lo diría. El dictador fascista dejó durante 40 años una hilera de asesinatos impunes pero nadie lo diría. Se podría hacer una ruta de la sangre fascista, desde el castillo de Montjuïc hasta el campo de la Bota, pasando por la Modelo, pero los hay que hacen, aunque, como si oyeran llover. Hay muertos en fosas sin identificar y España tiene el dudoso mérito de encabezar la macabra clasificación de países con desmemoria querida y alimentada. Esta semana el Parlament (de Catalunya) aprobará una proposición de ley para anular los juicios sumarísimos franquistas y este será otro motivo de choque con el ejecutivo de Rajoy, que no quiere escuchar ni a una cámara elegida democráticamente ni la memoria de un país.

EL PUNT-AVUI

Nabarralde · info@nabarralde.com · www.nabarralde.com · Tel. (34) 948 21 10 57 · Bidankoze kalea 3 · 31014 Iruñea NAFARROA · LG: NA-2449/2005 · ISSN. 1885-2181

Primer gobierno vasco, el contexto y los protagonistas

Iñaki Egaña

La aprobación del Estatuto originó aquel primer Gobierno Vasco (sin Nafarroa), azotado por vientos de guerra y preludio de una larga dictadura. ¿Cómo ocurrió, quiénes lo formaban más allá del indudable liderazgo de Agirre y cuáles fueron sus destinos?

Las negociaciones para la formación del Gobierno habían sido aceleradas. Desde el comienzo, el PNV asumió el liderazgo y, en consecuencia, Lehendakaritza. El EBB, con algunas discrepancias, alineó a los suyos y propuso a quien sería lehendakari y a los futuros consejeros. Luego, se reunió con el resto de formaciones que apoyaban el legítimo Gobierno de la República, integradas desde las elecciones de 1936 en el Frente Popular. También con los anarquistas de la CNT, que declinaron la oferta de entrar en el Ejecutivo pero que aseguraron un período de dos meses de «paz social». Como muestra de buena voluntad, tanto unos como otros, PNV y CNT, desplazaron conjuntamente a dos batallones al frente de los Intxortas.

La negociación, en los sótanos del Banco de Bilbao por razones de seguridad ante los bombardeos, fue sencilla. Las prisas apremiaban. Lehendakaritza para el PNV, junto a cuatro consejerías. El PSOE se quedaría con tres, y PCE, ANV, Unión Republicana e Izquierda Republicana con una. La juventud de los consejeros sería notable. De los once titulares, solo tres pasaban de los 40 años.

(…)

El lehendakari y los consejeros

Agirre murió en su exilio parisino en 1960, provocando una convulsión en el mundo jeltzale, que no tuvo un repuesto a su altura. Hasta aquella primera ETA, en su portada de "Zutik", le llamó «lehendakari maitea». Le sustituyó un gris Jesús Mari Leizaola, consejero de Justicia y Cultura, nombrado directamente por Juan Ajuriagerra, que entonces llevaba las riendas del PNV.

Heliodoro de la Torre, el más veterano de los consejeros, gerente de una sociedad minera y presidente de las Cooperativas Vascas, fue el titular de Hacienda. De la Torre, el hombre fuerte del Gobierno durante la guerra, murió en Pau en 1946, poco después de que se abriera proceso para su extradición solicitado por las autoridades franquistas.

Telesforo Monzón fue el cuarto de los consejeros jeltzales del primer Gobierno Vasco. El enfant terrible dentro del PNV. Protegido por José Antonio Agirre, evitó su defenestración en varias ocasiones. Con la muerte del lehendakari, su presencia en el seno de las estructuras auspiciadas por el PNV fue cada vez más incómoda. En Ipar Euskal Herria acogió a los primeros refugiados de ETA, creó Anai Artea y concluyó su ciclo en Herri Batasuna.

Los representantes del PSOE en el Ejecutivo Agirre tuvieron un recorrido complicado. Los tres fueron desautorizados por Indalecio Prieto cuando se hizo cargo de la dirección del PSOE desde México. Juan de los Toyos, gerente de la empresa Alfa, fue el consejero de Trabajo y Comunicaciones y el primero en dimitir. Murió en México en 1965.

> Las negociaciones para la formación del Gobierno habían sido aceleradas. Desde el comienzo, el PNV asumió el liderazgo y, en consecuencia, Lehendakaritza

Santiago Aznar, secretario general de UGT de Bizkaia, fue consejero de Industria. En 1940 intentó, sin éxito, transformar el partido, cambiando incluso el nombre: PSOV (Partido Socialista Obrero Vasco). Aznar sería expulsado del PSOE y sustituido por Fermín Zarza. El consejero de Industria se exilió en México y luego en Venezuela, donde murió en 1979. El tercero en discordia, Juan Gracia, había sido inspector de impuestos del Ayuntamiento de Bilbao. Llevó una de las consejerías más activas, la de Asistencia Social. Murió cuando huía de París a la entrada de las tropas de Hitler, en 1940.

Juan Astigarrabia fue el único consejero del PCE en el Gobierno vasco. Era el secretario general de su partido y recibió la consejería de Obras Públicas. Ya en 1937 se le expulsó del PCE, refugiándose en Panamá y Cuba, donde, tras la Revolución, sería asesor del Comité Central del PCC. Sus hijos se exiliaron en la URSS. Murió en Donostia en 1989, habiendo participado en las listas electorales de Euskadiko Ezkerra. Su sustituto en el Ejecutivo Vasco se llamaba Leandro Carro. En 1948, el PCE fue expulsado del Gobierno a petición del PNV y PSOE, tras mandato de Washington.

El bermeotarra Gonzalo Nardiz se encargó de Agricultura, representando a ANV. Ya en el exilio se alejó de la disciplina del partido, que criticó más de una vez su «excesivo seguidismo del PNV». A la muerte de Franco, volvió a Euskal Herria. Falleció en 2003, a los 98 años de edad.

La venganza franquista se cebó en Alfredo Espinosa, médico que dirigió la consejería de Sanidad. Había sido concejal del Ayuntamiento de Bilbo, por Unión Republicana. Fue detenido por traición de su piloto cuando se dirigía de Baiona a Bilbao en avión. Espinosa fue juzgado y ejecutado, en junio de 1937, en Gasteiz.

El tolosarra Ramón Aldasoro, de Izquierda Republicana, fue consejero de Comercio y Abastos. Gobernador civil de Gipuzkoa al comienzo de la Segunda República. De los once consejeros del Gobierno Vasco, era, sin duda, el mejor orador. En el exilio, fue delegado del Ejecutivo Vasco en Argentina y murió accidentalmente en La Habana. Sus restos, que yacen en el Panteón de los Vascos de la capital cubana, serán repatriados en 2017.

*Artículo completo en www.nabarralde.com

Naiz

Literatura de Navarra

Antonio Urra Maeztu

Hemos estudiado la Historia de España, mientras ignorábamos nuestra Historia del Reino de Navarra. Nos suena más Fernando el Católico que García el de Nájera, por poner un ejemplo. Últimamente un grupo de historiadores, recuerdo solamente aquí a Jimeno Jurío, nos regalan con una Historia de Navarra auténtica y no distorsionada como, a veces, se nos había presentado. Algo parecido viene a suceder con la literatura navarra. Hemos estudiado el Arcipreste de Hita, Calderón o Cervantes y sabemos muy poco del Príncipe de Viana, Axular o Margarita de Valois. Además, Navarra con una gran riqueza lingüística por la variedad de las lenguas usadas sobre todo en la Edad Media en nuestro reino, posee una literatura abundante.

Lenguas que se hablaron en Navarra: dos que se puede decir que son autóctonas, el euskera, la Lingua Navarrorum, es nuestra lengua milenaria, preindoeuropea; y el romance navarro. También se usó el occitano, el latín, el hebreo, el mozárabe o el árabe. Por resaltar algunos escritores: Bernard D'Etxepare escribió en euskera, el Príncipe de Viana en romance navarro, Yehuda ha Leví en árabe y mozárabe, Guillén de Tudela en occitano y Malón de Chaide en castellano. Todos ellos fueron navarros. En cualquier idioma, como en gran parte de lo publicado entonces, predomina el tema religioso.

NOTICIAS DE NAVARRA

Zergatik independentzia? duintasunagatik, eta kitto (I)

Iñigo Larramendi

"Navarra está tan baja de fantasía después que vuestra señoría reverendísima mandó derrocar los muros, que no hay hombre que alce la cabeza"

(Villalba Koronela, 1516)

Herri, estatu edo Inperio batek beste herri bat menperatzen duenean, helburu nagusi bat edukitzen du buruan: herri horren DUINTASUNA txikitzea. Hainbat ekintza gauzatuko du arlo militarrean, arlo politikoan, arlo ekonomikoan, zuzenbidean, hezkuntzan, arlo kulturalean, gizartean…. Baina ekintza guzti horien helburua bat eta bakarra da: menperatutako herritarrak beren burua gutxiestea, beren ondarea baztertzea eta beren etorkizuna, ezinbestean, menperatzaileari lotzea, erabat desagertu arte. Duintasunean dago, beraz, etorkizunaren gakoa.

Erabilitako hitzez….

Duintasuna galdu duen herri batek**,** eskubideez dihardu: kanpora begiratzen du zilegitasun bila.

Duintasunari eusten dion herri batek, nahiaz eta indarraz dihardu: barrura begiratzen du zilegitasun bila.

Lurraldetasunaz…..

Duintasuna galdu duen herri batentzat, haren zatiketa bere nortasunaren ezaugarria da. Duintasunari eusten dion herri batentzat, haren zatiketa inposaketaren islada eta ondorioa da.

Independentziaz eta menpekotasunez….

Duintasuna galdu duen herri batek, independentzia eskatu edo aldarrikatu egiten du: ez du uste berak gauzatu ahal duenik.

Duintasunari eusten dion herri batek, ez du independentzia eskatzen edo aldarrikatzen: berak gauzatu behar duela badaki.

Oroimen historikoaz…

Duintasuna galdu duen herri batean, inor gutxik daki menpekotasuna noiz hasi zen, askatasunaren aldekoen artean ere.

Duintasunari eusten dion herri batean, denek dakite askatasuna noiz galdu zen, askatasunaren aurkakoen artean ere.

Kulturaz eta hizkuntzaz….

Duintasuna galdu duen herri batentzat, arrotz bat egoten denean, bertakoen artean hizkuntzari eustea ez da adeitsua.

Duintasunari eusten dion herri batentzat, arrotz bat egoten denean, bertakoen artean hizkuntzari uzteko eskatzea ez da adeitsua.

Nortasuna vs ekonomiaren auziaz…

Duintasuna galdu duen herri batek, haren nortasuna erakargarria ba ote den galdetzen dio bere buruari.

Duintasunari eusten dion herri batek, ez dio bere buruari haren nortasunaz galdetzen: badauka, eta kitto.

Eta amaitzeko…

Duintasuna galdu duen herri batek, burujabe izateko arrazoiak bilatu eta azaldu behar ditu. Duintasunari eusten dion herri batek, aldiz, ez du burujabe izateko arrazoirik bilatu behar: duintasun kontua da, besterik ez. Horren erraza da….

Duintasuna galdu duen herri bati, zerumuga bakarra gelditzen zaio: desagertzea.

Duintasuna berreskuratzen duen herri batek, aldiz, edozein ostopori aurre egin dakioke.

Geure DUINTASUNA berreskuratu dezagun, geure pentsamendu eta hitzekin hasita, geure eginkizunen jabe izateko. Hori bai gure esku dagoela.

Sorginak

Beñi Agirre

Emakumezkoek batez ere, eta ez Erdi Aroan bakarrik, sekulako jazarpena pairatu izan dute sorgin hitzarekin laidoztatu edo estigmatizatuak izan direnean. Sendabelarren ezagutzaz baliatuz sendatzeko edota ume berriak mundura ekartzeko langintzatik baztertuak izan ziren. Sorginkeria erabiltzen zutela leporatuz sutara kondenatuak eta erailak izan ziren. Batzuek nafar euskaldun emakumeen genozidioaz hitz egin izan dute. Zer ziren bada sorginak eta zergatik halako jazarpena?

Euskalduntze berantiarra teoriaren propagandistek eta frantses-espainiar ikuspegiko hizkuntzalari batzuen arabera, sorgin hitzak latinezko sors du oinarrian: "El viejo nombre vasco para las brujas, sorgin, está construido a partir del latín sors, equivalente a suerte o destino" (Alberto Santana, Una historia de Vasconia, la hora de las brujas, 12:23 minutuan). Mitologia erromatarrean, Sors, jainko txiki bat zen, zortearen jainkoa. Ustez, Fortunaren semea.

Euskaraz, berriz, -gin, -kin atzizkiak lanbide edo ofizioa adierazten dute: hargin, harakin, bizargin… Sorgin hitzak erromatarrek ekarritako latina oinarria balu, sorgin zor(i)-gin beharko luke. Horrela, zorginak, erromatarren Sors eta Fortuna edo grekoen Tique jainkosen parekoak beharko lukete. Ondorioztatze hau, ordea, ez dut inon ikusi. Sorginak zori onaren ala txarraren egileak zirenik, alegia. Ez diot inori entzun.

Aitzitik, beste aukera bat ere badago korapilo hau askatzeko: sor, sortu izatea, eta sorgin, sortu egiten dutenak edota sortzera laguntzen dutenak izatea; adibidez, comadrona edo matrona gaztelaniaz, edo maïeuticien frantsesez. Elhuyar itzulpen hiztegiaren arabera, comadrona hitzak "emagin; sortzain, ama-maestra" adierak hartzen ditu. Beraz, sorginak "sortzainak" izan zitezkeen. Horrela bada, genozidioaren hipotesiak indar handia hartzen du. Zeren eta, Erdi Aroan, eta behar bada gaur egun ere, pentsa zitekeen euskal haur berriak sortzen laguntzen zuten sortzainak paretik kenduz gero, haur berririk ez zela sortuko; edo laguntzarik gabe sortzen baziren, hilik jaioko zirela konkistatu berriko Nafarroan. Horretarako jarri zuen indarrean Fernando II.ak Inkisizioa santua.

Izan ere, Inkisizioa eta sorginak ia beti loturik daude Euskal Herriaren historian. Amaia Nausia Pimoulier andreak dionez "Osagile (sanadora) eta ama-maestraren (partera) ofizioak emakumeen esku egon ziren mendeetan. XVI. mendean, ordea, ikuspegi aldaketa gertatu zen. Inkisizioaren eta indarra hartzen ari zen medikuntzaren ikuspegitik emakumeek superstizio eta sineskeriekin nahasten ari ziren medikuntza. Haien ustez, kultura ofizialak medikuntza liburuetan eta gizonezkoengan oinarritzen zituen bitartean, emakumeek naturaz gaindiko ahalmenak erabiltzen zituzten euren ofizioan."

Ondorioa berehala etorri zen. Egile beraren esanetan "… 1565. urtean, Irunberrin, fiskal edo akusazio publikoak Pedro Sanz jaunaren alarguna Joana de Mongelos andreari intrusismo profesionala egitea leporatu zion medikuntza eta kirurgia baimenik gabe egiten zuelako." Hortaz, fiskaltzaren arabera "edariak, ukenduak edo enplastuak agindu nahi zuen orok Maiestate horrek (Espainiako erregeak) aztertuta eta onartuak izateaz gain horretarako lizentzia beharko dute, horiek ezean legeak esaten dutena bete beharko dute." Erregeek esleitutako titulua eskatzen hasi ziren gaixoak sendatzeko eta haurrak mundura ekartzeko.

Gizonezkoek ehunka zientzia liburu idatzi zituzten emakumeek mendeetan jasotako ohituretan oinarrituta. Emakumeek artatzen zituzten gerratik zaurituta itzultzen ziren soldaduak. Amaia Nausiak dionez "Mendeetan zehar emakumeek erabili zuten jakintza eta eskarmentua eraman zuten liburuetara gizonezkoek. Emakumeak izan ziren sukaldeko su bazterretan egositako errezetak gaixoengan erabiliz hartutako eskarmentua belaunaldiz belaunaldi transmititu eta jakintza metatu zutenak." Ez da harritzekoa, beraz, errege konkistatzaile berriak emakume haien boterean arriskua ikustea eta deuseztatu behar zituela erabakitzea. Esan behar da gizonezko batzuk ere bazirela jarduera hau egiten zutenak, baina, batez ere emakumezkoak aritzen ziren.

Aitzakia behar zen ordea, eta ez nolanahikoa. Konkistaren zilegitasuna oraindik ezbaian eta Europako errege-auzitegietan eztabaidan zegoela, halako neurri bat hartzean, denak errege konkistatzailearen kontra jar zitezkeen eta. Bazuten jada emakume horiek erresumako mediku ofizialei egiten zieten "konpetentzia desleialaren" aitzakia ongi landuta. Ez zen nahikoa. Horregatik asmatu zuten sorginen bilkuretan erabiltzen zeneko zoofiliaren zurrumurrua, meza beltza, deabru eta satanen parte hartzea akelarretan eta abar. Elizak eta Europako noblezia puritanoak ez zuen besterik behar izan sorgin-ehizari gogor ekiteko. Aitzakia, bistan denez, asmakeria hutsa izan zen. Puritanismoa herritarrentzat zen, ez nobleziarentzat.

Gaur egun ere, inpunitate osoz, astakeria eta asmakizun guzti horiek ontzat ematen dira eta benetakoak balira bezala erabiltzen dira. Halaxe baieztatzen da lehen aipatutako "Una historia de Vasconia, la hora de las brujas" EITBk ekoitz eta ematen digun telesailean. Halaxe erabiltzen dute akelarreaz eta sorginez ari direla Espainiaren eta Frantziaren ikuspegitik historia kontatzen digutenean. Errazkeria osoz berdintzen dituzte sorginak eta euren "brujak".

Honetan guztian, beste kasu askotan bezala, kontatzen denaren testuingurua kontuan hartzea beharrezkoa da. Asko idatzi da Europan "brujei" buruz. Ipuinak, filmak, historiak… Denetik idatzi da, baina oro har, erratza baten gainean hegan egiten duen emakumezko bat irudikatzen da. Igarle eta profetak dira, xamanekin eta edabe magikoak prestatzen dituztenekin lotzen dira, konjuruak eta aztikeriak egiten dituzte, hildakoekin harremanetan jartzen dituzte bezeroak, meza-beltzak zuzentzen dituzte eta ez dakit zenbat gehiegikeria gehiagoren egile izaten dira.

Artikulo osoa: www.nabarralde.com

Nabarralde · info@nabarralde.com · www.nabarralde.com · Tel. (34) 948 21 10 57 · Bidankoze kalea 3 · 31014 Iruñea NAFARROA · LG: NA-2449/2005 · ISSN. 1885-2181

Kazeta: nabarralde

Zuzendaria: Angel Rekalde
Editorea: M. Mindegia
Diseinua: Nabarralde

Laguntzaileak: Aitzol Altuna Enzunza, Eusko Ikaskuntza, Pedro Esarte Muniain, Joseba Asiron Saez Anna Ballbona, Iñaki Egaña, Antonio Urra Maeztu, Iñigo Larramendi Beñi Agirre, Pako Aristi

112. ZENBAKIA
azaroa 2016

Maitasunaren termometroa

Pako Aristi

Urkullu, Larrion, Iriarte, Alba, Otegi, Ortuzar, Mintegi, Zabala, Mendia, Egibar, Garrido... Aste hauetan gure menu informatiboaren osagai izan diren pertsona hauek milioika hitz jaurti dituzte ahotik egunero, gai asko plazaratuz, euren ustez, baina irudiak ikusi ezean zaila zen bereiztea nor zen hizlaria, denak eskala kromatiko berberean mintzatu direlakoz; alegia, Espainiaren dominazioa hezur-muinetaraino onartuz, justifikatuz eta legitimatuz. *Independentzia* hitzik ez dut entzun ia, baina beste baten ausentziak eragin dit urradurarik larriena: *Euskal kultura*.

Gurea bezalako herri menderatuetan kultura propioarekiko atxikimendua oso ahula izaten da, eta hori ez da gertatzen biztanleen axolagabekeriagatik; arazoa estrukturala da. Menderatzailearen kultura hegemonikoak kentzen dio zilegitasuna gureari. Kultura gutxituak kultura gutxietsiak dira beti. Eta mezu hori zabaltzen duen monopolio komunikatiboak etengabe zartatzen ditu gure belarriak. Ezin da euskal kulturaz hitz egin Euskal Herriak nozitzen duen botere propio baten gabezia kontuan hartu gabe, diagnostiko guztien okerraren abiapuntu izan bailiteke.

Zer da euskal kultura? Euskal Herriak euskal kultura dela erabakitzen duen oro. Baina horretarako burujabe izan behar du nazioak, eta gu ez gara; gu burugabe gara gaurkoz. Gure herriak ez du bere adierazpen kulturalak legitimatzeko tresnarik, horretarako hierarkia politikoaren gailurrean egon beharko bailuke, munduan onetsitako nazio-kultura guztiak dauden bezala. Ez gara harritzen, egunkarietan lasai-lasai irakurtzen dugunean Brasilek potentzia kulturala izan nahi duela, eta dirutzak eskainiko dizkiola bere literaturaren eta idazleen zabalpen unibertsalari.

Ez gara harritzen Jack Lang-ek, Frantziako kultur ministroa izan zenean, kulturara bideratutako 2.600 milioi frankori gutxi iruditua, sei aldiz biderkatzea erabaki zuenean, sinetsirik kultura frantsesak beharrezko zuela estatu indartsu eta interbentzionista baten parte hartzea. Kultura subentzionatzea, alegia. Edo jakiten dugunean apenas guk baino milioi eta erdi biztanle gehiago dituen Norvegiako estatuak, salbuespenik gabe, argitaratzen den liburu ororen mila kopia erosten dituela, liburutegi-sarean banatzeko, urtean 300 liburu itzultzen dituela munduko 50 herrialdetan banatzeko. Subentzioak denak. Gurean estigma dena, atzerrian arau.

Hunkigarriak izan ziren Herbjorg Wassmo idalze norvegiarraren hitzak egunkari batean: «Laguntza hauei esker gure liburuak aurki litezke Moskun bezala Madrileko Retiron. Ez du merezi bere kultura babesten ez duen herri bat defendatzerik». Alegia, merezi du bere kultura babesten duen herri bat defendatzea. Hona kulturaren definiziorik unibertsalena, guretzako ere balio duena: kultura da herri batek bere buruari dion maitasunaren termometroa. Eta: Kultura da herri batek duen egoera psikologikoaren termometroa. Eta: Kultura da herri batek duen egoera ekonomikoaren termometroa. Kultura. Ez abiadura handiko trenak, ez futbol-zelai erraldoiak, ez museo estrabagante eta defizitarioki erraldoiak.

Kulturak erakusten baitu herri batek munduan hartu duen lekuaren neurria, denboraren tentsioei eman dien erantzuna, nortasuna osatzeko hartu dituen erabaki estetiko-erritualak. Zertarako hau guztia? Beste herrialdeetatik bereizteko. Kultura ororen sorburua bereiztea da, gu ez garela gure auzoko herritarrak bezalakoak nabarmentzea, gu gu garela, ez hura, ez haiek. Gure hizkuntza dugula, gustatzen zaizkigun gauzak, eta batere atsegin ez zaizkigunak. Horretarako izango ditu eskura: estatu bat, legitimazio iturri gorena; hedabideak hegemoniaren zerbitzuan; sari propioak; erreferente nagusiak historia liburu eta filmetan gorpuztuko direnak; historiaren monopolioa; eta herriaren interesetan zentraturiko hezkuntza sistema propioa.

Herri adimentsuek badakitelako kultura hegemonikoa naturala dela, ez dela kuestionatzen, ez duela baimenik eskatu behar existitzeko. Menpeko kultura, aldiz, ez da naturala, beti kuestionatua da, baimen eske ibili behar du beti. Kultura errebindikatiboa izatera kondenatua da. Donostia-16 izan zitekeen errebindikazio iturri, baina ez da hala izan, kultura hegemonikoaren adierazle baizik: integrista, sektarioa, ez baitio iritzi kritikoari lekurik eman, eta bai Espainiak Euskal Herrian buruturiko soberania lapurretaren legitimazioari.

Hau da euskal kulturaren arazo nagusia: ez da defendatzen burujabetasunetik, bere lurrean hegemoniko bilakatzeko asmotik, subordinaziotik baizik, ontzak emanez kultura espainolaren eta frantsesaren hegemonia, eta are larriago dena: kultura horiek gure kultura ere badirela onartzetik.

Zer gertatzen zaigu euskaldunoi Andaluziarekin? Harekin batzeak, kultur adierazpenetan izanda ere, ez dakarkigu ezer onik, ez bada nazio handi baten bi erregio garela agertzea. Gai-jartzaileak ikusi ditut *faralaes* jantziarekin, txalaparta eta flamenkoa nahasturik, triki-flamenkoa, aurresku-flamenkizatua, gure arteko topikoak gain-esplotatzen dituzten filma eta telebista serieak, gure dirutik, flamenkoa dantzatzeko ikastaroak herri askotan, udalen aurrekontuetatik ordainduak, eta bertsolariak *kantaore* flamenkoekin Lauaxeta eta Lorca omentzen Txillida-Lekun. Gure kultura agertzeko osagarri espainol bat behar dugu beti?

Ez esan horrek egingo duela euskal kultura unibertsal, hori denik kultur mestizaiaren oinarri, aniztasunaren zutabe, alienazio hutsa besterik ez baita. Ikusi al dugu, bada, Andaluzian Lauaxeta omentzen? Andaluziarrak euskal kultura bereganatzen, gure hizkuntza ikasten eta defendatzen, gure aberastasuna aitortzen bertako erakundeetan? Zer tratu modu dugu kultura zapaltzailearen arietea izan den horrekin, Ez Dok Amairukoek «nazional-flamenkismo» deitzen ziotena? Ondorioa betikoa da: kanpo-eder egin nahi gaituztela, jasan dugun kolonizazio kulturalak ezarri digun konplexuaren lupetzetan leporaino sartuak, itxi eta lokalista garela pentsatzeraino. Eta tristeena: munduko izatea Espainiaren mugetan soilik gauzatu ahal dela.

Espainia maitatzera behartu nahi gaituzte ezarian-ezarian. Espiritu kritiko gehixeago espero dut gure intelektualen aldetik, gure kulturarentzat erabat hilgarria litzatekeen asimilazioari aurre egiteko.

Berria

nabarralde
kulturekimenaketasustapenakiniciativasjpromocionesculturalesiniciativesetpromotionsculturelles

Eman izena nabarkide izateko
Hazte socio de Nabarralde

info@nabarralde.com · www.nabarralde.com · (34) 948 21 10 57 · Bidankoze kalea 3 · 31014 · Iruñea/Pamplona/Pampelune · NAFARROA-NAVARRA-NAVARRE · DLNA: 2449/2005 · ISNN 1885-2181

Izen - abizenak Nombre y apellidos:

Helbidea / Dirección: **Herria** / Población:

Posta kodea / Código postal: **Hizkuntza** / Idioma:

E-mail: **Tel: Mugikorra /** Móvil **Finkoa /** Fijo

Kuota / Cuota (12€ **Hilero** / Mensuales) • **35 urtez azpikoek** / menores de 35 años (8€ Hilero / Mensuales) **Erakundeak** / Entidades: (Hitzarmenaren arabera / Según convenio)

Kontu zenbakia / Nº de cuenta (IBAN 24 dígito): **ENA** / DNI:

Ekarpenak PFEZ aitorpenean kengarri dira / Las aportaciones son deducibles del IRPF